

Nola deshumanizatzen dituzten pertsona migratzaileak hedabideetan

2021ean, 26 egunkaritako 3.650 albiste aztertu ditu **Acoge** sareak, hedabideetan pertsona migratzaileei ematen zaien tratuaz txostena egiteko. Praktika txarrak jaso dituzte eta horietako zazpi bildu ditu Media.cat-ek:



Iturri gisa haiengana ez jotzea

Aztertutako edukien **%83**tan ez da migratzaileen ahotsik sartu, hedabideek ez dituzte informazio-iturri gisa hartzen.



Irudi sentsazionalistak aukeratzea

Pertsona migratzaileei lotutako edukien irudiak aztertuta, irudien **%20** desagokitzat jo dituzte, erdia baino gehiago erabat sentsazionalistak direla dio txostenak eta irudien **%35**ak gainera haurren eskubideak urratzen dituela.



"Pertsona" hitza saihestea

Aztertutako albisteen erdiak ez du pertsona hitza erabiltzen, migratzaileez aritzeko. Hizkuntzaren ekonomiatik izan ohi da sarritan, baina pertsona migratzaileak deshumanizatzeari bide ematen dio.



Hizkuntza alarmista erabiltzea

Jende oldeaz, oldarraldiez, harresiak gainditzeko erasoez... mintzatzen dira hedabideak. Bost albistetik batek hizkuntza hiperbolikoa, militarizatua edo alarmista darabilela dio txostenak.



Nazionalitatea azpimarratzea beharrezkoa ez denean

Titularren heren bat sentsazionalista dela ondorioztatu dute eta izenburuen **%10**ak pertsonen nazionalitatea nabarmentzen duela, nahiz eta beharrezkoa ez izan informazioan.



Migratzaile rolean baino ez erakustea

Pertsona migratzaileei lotutako albisteen **%43** baino gehiago mugetako migrazio fluxuez edota migrazio politikez ari da, ez ditugu beste rol batzuetan ikusten. Haien bizitzaz, generoaz, LGBTBI ikuspegiaz... hitz egiten duten albisteak apenas iristen diren **%7** ra.



Haurren ikuspegi ezkorra ematea

Haurrak eta adin txikikoak dira hedabideek okerrer tratatzen dituztenak, dio txostenak. Aztertutako albisteen erdiak baino gehiagok gaztelaniazko MENA siglak (adin txikiko atzeritar ez-lagunduak) darabiltzate haurrak aipatzerakoan, albisteen **%14** kriminalizatzaileak dira eta **%44**ari testuingurua falta zaio.